

MIRENTXV

## Eraikin polita, iragan makurra

"Frankismoaren basakeria jasan zutenen oroimenez", Islada Ezkutatuak-ek monolito bat inauguratuko du Miirentxun hilaren 26an, 12:00etan / 7

TXINTXARRI

## 'J' hizkidunen jaialdia, aurtengoa

Aurtengo jaialdia aurkeztu du Jalgune elkarteak; J hizkiduna izango dela iragarri dute antolatzaileek / 2

**Imanol Lizardi**  
oroitzeko bertso saioa  
antolatu dute. Kultur  
etxean izango da,  
**Euskaren Egunean** / 3

**Sei establezimenduk**  
parte hartuko dute  
Aterpea elkartearen  
IX. Pintxo Bidean,  
hilaren 24tik 26ra / 4

**Emakumearen**  
Kontrako Indarkeriaren  
Aurkako Eguneko  
ekimenak abian  
jarri dituzte / 8-9


**Erregional mailako**  
Texas Lasartearrak  
4-2 irabazi dio  
Usurbili, emaitzari  
buelta emanda / 10

**Buruntzaldea IKTko**  
benjamin eta alebinek  
lan ederra egin dute  
Andoaingo Allurralde  
kiroldegian / 12

**Herriko zenbait**  
musika taldek  
Santa Zezilia gogotik  
ospatu dute, euren  
zaindariaren eguna / 15

BLACK  
FRIDAY

2mó 89€  
lehen 99€  
erreflexuen aurkako  
betaurreko graduatuak



R.P.S. 91/20

**MULTIÓPTICAS**

943 37 74 55  
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Jalgune elkarteko kideak, hainbat udal ordezkari ondoan dituztela, abenduaren 2ko jaialdia iragartzeko prentsaurrekoan. TXINTXARRI

## 'J' hizkidun pertsonekin ospatuko dute aurten

Jaizaleak, jostariak, jakintsuak, jatunak, jenioidunak... 'J' hizkidun pertsonen eguna ospatzera deitu ditu herritarrak, Jalgune elkarteak. Abenduaren 2an izango da hori, larunbatarekin. 18:30ean hasiko da, eta bertaratu nahi dutenek, gonbidapenak eskuratu beharko dituzte

### Txintxarri

Urtero lez, Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren harira (abenduaren 3a), jaialdia aurrera eramango du Jalgune elkarteak. Abenduaren 2an egingo dute ekimen hori, Manuel Lekuona Kultur Etxean, eta, ohi bezala, gonbidatu ugari izango dira, elkarteko kideekin batera, ohol-tza gainean.

J hizkidun pertsonen eguna ospatuko du aurten Jalgune elkarteak bere XVII. jaialdiarekin; hala azaldu dute bertako kideek, hitzorduaren berri emateko prentsaurrean egin duten agerraldian.

Jaia gustuko dutela azaldu dute, eta ezpiritu gaztea dutela ere nabarmendu dute; jende gaztea edo gazte jendea direla. Horrekin, batera, kontatu dute, zenbaitek esaten dietela "jargo berezia" dutela, tarteka ez dituztela ulertzen, eta noiz edo noiz, izan da buruko mina eragiten diotela adierazi dienik

ere. Gaineratu dute, horrelako jokaerek, eurei ere burukomina eragiten diela.

Justuak izatea da taldekideen beste nolakotasun bat, edo, hala izaten saiatzen dira behintzat. Hala azaldu dute, eta, aitortu, justuak ez diren gauzengan pentsatzeak eta horiek aldatzen saiatzeak "min dezente" eragiten diela. Ohartzen dira, ordea, "bizitzaren jokoaren parte" dela hori, eta eurak bertako "parte hartzaileak" direla: "Jokozaleak, jostariak, jokalarionak eta txarrak gara". Aitortu dute, jokoan irabaztea gustuko dutela, baina gehien gustatzen zaiena. jatea, hau da, jokatzea. Eta, noski, hori konpainia onean bada, ezin hobeto: "Zorionez, Lasarte-Orian onena dugu. Herri jaizalea garela esan daiteke. J-dun herria gara beraz".

### "Juntu" ospatzera

Denek elkarrekin ospa dezaten nahi du Jalgune elkarteak, eta hori izan dadin, abenduaren

2ko jaialdiara joan daitezten dietu ditu herritarrak. Baina elkarrekin hitzak J hizkirik ez duenez, juntu hitza erabili dute: "Jende jatorraren eguna juntu ospatzera animatzen zaituztegu".

Agerraldiari amaiera eman aurretik, gogorarazi dute jaialdia kultur etxean izango dela, 18:30ean, eta, iragarri, Semblante Rociero koruko eta LOKE gimnastikako kideen laguntzak izango dutela aurten. Sarrera, ohi bezala, doakoa izango da, baina bertaratu nahi dutenek, gonbidapena jaso beharko dutela ohartazi dute.

### Hitzarmenen sinatzea

Bestalde, Agustin Valdivia alkateak eta Pili Bermejo Jalgune elkarteko lehendakariak 2022ko eta 2023ko ekintzak lagunduko dituen hitzarmena sinatu dute, berriki. Udalak jakinarazi du 75.110 euroekin lagunduko duela elkartearen jarduna.



EH Bilduren udal taldeko bost zinegotziak, aurrekontuei buruzko agerraldian. EH BILDU

## "Herritar guztien ongizatea" bermatzeko lan egingo dute

Udal Gobernuaren proposamena jasota, "datozen asteetan" 2024ko aurrekontuak negoziatzen hasiko da EH Bildu

### Txintxarri

EH Bilduren herriko taldeak iragarri duenez, udal gobernuaren 2024rako aurrekontuen proposamena jaso du. "Zehaztasunez" aztertu eta datorren asteetan negoziatzen hasiko direla iragarri du, gainerako oposizioko alderdietako kideekin batera. "Herritar guztien ongizatea bermatzeko duten aurrekontuak behar ditugu".

Alderdiaren lan ildo azpimarragarrietako bat etxebizitzarena da, izan ere, "Lasarte-Orian bizi proiektu bat garatu nahi duten herritar askorentzat gero eta zailagoa bihurtzen ari da horretarako oinarria, etxebizitza, eskuratzea". Hori aurre egiteko, EH Bilduk proposatuko du "ahalik eta etxebizitza parke publiko handiena" sortzea udalak, horren prezioa ez dadin "merkatu librearen eskuetan geratu". Norabide horretan, Kotxeras eremuan eraikiko dituzten bizilekuak alor sozialera bideratzea defendatuko dute eta horri ekiteko neurriak proposatuko, hala nola, behararren eta bizioki hutsen gaineko azterketa egitea. Bestalde, udal taldeko kideek uste dute "beharrak" dela Askatasunaren parkean aterpe bat eraikitzea, "espazio publiko gehiago eta hobeak" izateko bidean.

### Herri kohesioa "sendotu"

"Komunitate kohesionatuago bat" lortzea helburu, izaera hori defendatu eta sendotzeko konpromisoa hartu du EH Bilduk: batetik, herrira etorri berrientzat

harrera protokolo eta plana definitu eta osatzeko diagnostiko bat martxan jartzeko proposatuta; eta, bestetik, herriko norbakoek, eragileek nahiz elkarteek haien jarduna aurrera eramateko erabilera anitzeko espazioaren proiektua gauzatu, udal espazioen azterketa baten bidez.

Beste lan ildoetako bat mugikortasunarena da. "Hamar minutuko hiria" deritzonaren baitan, elkar konektatuak egongo diren auzoak eta herria nahi ditu EH Bilduk, "lehenasuna oinezko, bizikleta eta hiribusari emanda". Proposamen zehaztetara joanda, hauek aipatu dituzte: bizikleta eta patineteentzako aparkaleku seguruak ezartzea, eta, horrez gain, "autoak aparkatzeko arazoei konponbidea emateko", erdigunetik gertu, "parking disuasorio bat" kokatzaren aukera aztertzea.

### Gizarte Zerbitzuetako arreta

Koalizio subiranistak udalaren Gizarte Zerbitzuetako itxarrote zerrendak murriztu eta atentzio integrala hobetzeko programak sortu nahi ditu, lasarteoriatar guztiek dutelako "bizitza duina" izateko eskubidea: "Adineko, emakume, migratzaile edo adin txikiko, guztion bizitzak bizigarriak izateko ezinbesteko baliabideak eman behar dizkie udalak".

Azkenik, herritarren udala izateko leihobakarraren sistema gorpuztu nahi dute, uste dutelako erakunde horrek bere baliabideak era "arduratsu eta parte hartzailean" kudeatu behar dituela.



NEURE KABUZ  
GORKA LASA

## Kolorea galdu arte

Gogoan dut 1989. urtean, adiskide batek kamiseta bat oparitu zidala urtebetetzerako. Kamixeta txuria zen eta bertan, erdi-erdian, 10 bat urteko neskatxa bat Palestinako bandera bat eusten ageri zen azpian hizki larriz idatzirik PALESTINA ASKATU! jartzen zuena. Ilusio handia egin zidan opari hark, baita asko gustatu ere, hainbeste, ezen ia kendu ere ez nuen egiten eta neskatxaren argazkiaren kolorea galdu arte jantzi bainuen. Ahaztua nuen kamixeta hura, baina halaberharrez, eta zoritxarrez, nire oroimenak gaurkotasuneraino berreskuratu du, azken hilabete honetan Ekialde Hurbilean gertatzen ari den jazarpen eta sarraskiaren ondorioz.

34 urte igaro dira ordutik. Zenbat euri egingo ote zuen harrezkero, baina Euskal Herrian euria goitik behera erortzen den bezala, Palestinan bonbak eta lehergailuak erortzen dira. Hemen, euriak mendiak, basoak, hiriak eta kaleak bustitzen ditu. Ibaiak eta putzuak sortzen ditu, airea garbitu, usain berezia nabarmendu, kimu berriak erne eta hazten lagundu, kolorez jantzen du gure bizitza. Han, berriz, bonbek hiriak eta herriak txikitzen dituzte, ospitaleak eta eskolak suntsitzen, zubiak eta kaleak eraisten, etxeak eta lantegiak birrintzen.

Berdin du zibil edo miliziano, zahar edo gazte, haur edo emakume, bizitzak ez du deus balio, ez bizitzak ez ezerk, eraikitako guztia desegitea da helburu, izan familia, erakunde edo lagunarte, eta ahal bada, bizitza berririk sortzeko aukerarik txikiena ere zanpatu. Batzuen mendeku eta gorroto goseak besteen askatasun egarriak itotzen ditu.

Neskatxa hura imajina nezakeen, gure herriko edozein haur bezala, euriak sorturiko putzuetan plisti-plasta jolasten. Imajina nezakeen ere etorkizuna eraiki nahirik unibertsitatean ikasketak burutzen, eta amaitzean Gazako ospitalean emagin lanetan bizi berriei laguntzen. Imajina nezakeen familia bat eraiki eta Palestina aske baten etorkizun oparo batekin amesten.

Baina gaur, telebista piztu eta albistegietan Gaza ikusi dut, edo Gaza izan zenekoa, ez ibai, ez putzu, usaina kirats eta giroa lauso. Burdina, harria eta hautsa, hondakina hondakinaren gainean, kolorea galdu arte suntsitua.



ORRIARTEKO IRAKASLE GELA

## Euskal eskola publikoaz harro

Oriarte institutuko Larrekoetxe eraikineko irakasleek bat egin dute Euskal Eskola Publikoaz Harro topaguneak egindako deialdiarekin eta ikastetxe atarian mobilizatu dira, hezkuntza eredu hori "erdigunean jarriko duen legea" nahi dutelako. *Hezkuntza lege honi EZ* lelodun kartelak erakutsi dituzte ekintza horretan.

# Imanol Lizardi oroituko dute abenduaren 3an

Euskararen Egunarekin bat eginik, Imanol Lizardi euskaltzale lasarteoriatarra omenduko dute. Herrian egindako lanaren trukean jasoko du aitzatespena. Hura ezagutzen zuten herritarrek ekimenera joan daitezzen deitu dituzte antolatzaileek

### Txintxarri

Sei hilabete igaro dira Imanol Lizardi euskaltzale lasarteoriatarra zendu zenetik, eta, orain, Euskararen egunarekin bat eginik, udalak, Earra bertso-eskolak eta Ttakun Kultur Elkarteak bertso saio bereizi bat antolatu dute bera omentzeko. Andoni Egaña eta Ane Labaka bertsolariak arituko dira oholza gainean, eta Mailu Arruti arduratuko da saioa gidatzeaz.

Horren guztiaren berri eman dute antolatzaileek prentsaurreko bidez, eta bertan izan dira, besteak beste, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordoki eta lehendabiziko lehendakaria izan zen Pello Sasiain; egungo Euskara batzordeko teknikari, Iñaki Arruti ere bertan izan da. Beraiekin batera, agerraldian izan dira baita ere Earra bertso eskolako Joxe Kruz Labaka eta Ttakun KEko lehendakari Mari Karmen Ormazabal.

Sasianek eta Antxordokik azaldu duten modura, Imanol Lizardi "bidaide" izan du udaleko Euskara Batzordeak 1986. urteko sorreratik hasi eta 2016ko *Irten armairutik* izenburuko Euskararen Maratoi gogoangarria arte. Ttakuneko ordezkariak ere Imanol Lizardi Lasarte-Oria-



Mercero gunean aurkeztu dute, antolatzaileek, oroimen ekitaldia. TXINTXARRI

ko euskalgintzan egindako lana azpimarratu dute, besteak beste, kultur elkarte horren sortzaileetako bat izan zelako.

Amaitzeko, Joxe Kruz Labakak bertso saiora joateko deia egin die Imanol ezagutu zuten guztiei eta ekimen bereizi horretaz go-

## BERTSOLARIEK, HERRITARREK ETA LAGUNEK PARTE HARTUKO DUTE OROIMEN EKITALDIAN

zatu nahi duen edonor ere bertara dadin deitu du. Izan ere, bertsolari profesionalen parte hartzeaz gain, herritarren eta lagunaren emanaldiek ere osatuko baitute saioa. Ohiko bertso saioez gain, bertso jarri musikatuak ere izango dira, bertsolari diren eta izan diren herritar eta lagun zahar zein gazteek emanak.

Arestian aipatu bezala, hitzordua abenduaren 3an izango da, 18:00etan kultur etxeako auditorioan. Sarrera doakoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.




zerbitzu mistoak

# MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektriko
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria



Semblante Andaluz elkarteak aurkeztu dute egitasmoa. TXINTXARRI

## Pintxo goxo-goxoak prestatu dituzte asteburuko biderako

Plan B, Herriko Etxea, Araeta, Buenetxea eta Arima ostalaritza establezimenduek parte hartuko dute

### Txintxarri

Aterpea elkarteak IX. Pintxo Bidea aurrera eramango du asteburu honetan, hilaren 24tik 26ra. Ekimen horren aurkezpena eta partaideek prestatu dituzten jakien dastaketa Semblante Andaluz elkartearen egin dituzte. Iritzi profesionala NH Hoteleseko sukaldari Roberto Garciak eman du aurten, eta herritarren saria, elkarte gastronomiko hauetako ordezkari banak: Arrieskalleta, Lasarte-berri, Palomo Linares, Semblante Andaluz eta Virgen de Guadalupe Extremadura Etxea.

Horiek guztiek aurkeztutako pintxo maila azpimarratu dute eta "oso goxoak" daudela esan. Garciak gomendatu die dastaketa egin bitartean ura edateko, edariak jakien zaporean ahalik eta gutxien eragiteko. Jaramon egin diote batzuek, eta beste batzuek nahiago izan dute garga-garda edota ardoa.

Aurtengo egitasmoan Plan B, Herriko Etxea, Araeta, Buenetxea, Arima eta Lasarte-Berri establezimenduek parte hartuko dute. Antolatzaileek herritarrek animatu dituzte egitasmo gastronomiko horretaz gozatzen.

## IX. Pintxo Biderako elaborazioak

Jaki goxo askoak prestatu dituzte herriko sei ostalaritza establezimenduk gaur (hilak 24) hasiko den pintxo biderako: Plan B, Araeta, Herriko Etxea, Lasarte-Berri, Arima eta Buenetxea animatu dira aurten.



Txanpinoi beteak. TXINTXARRI

### Bolognesa haragi eta gaztarekin barrubetetako txanpinoia

PLAN B KAFETEGIA  
(HIPODROMO ETORBIDEA, 15)



Onddo kurruskaria. TXINTXARRI

### Onddoak daramatzen barazkiekin egindako bexamel eta trufa zuri oliodun kurruskaria

BUENETXEA TABERNA-KAFETEGIA (PABLO MUTIOZABAL KALEA, 2)



Haragi kruxpeta beteak. TXINTXARRI

### Kimchi maionesarekin barrubetetako haragi kruxpetak

HERRIKO ETXEA JATETXEA  
(KALBARIO BIDEA, 7)



Txerri haragi marinatua. TXINTXARRI

### Txerri haragi marinatua, guakamole eta 'pico de gallo' saltsa mexikarrarekin, bao ogian bilduta

ARIMA GASTROTABERNA  
(OSINA KALEA, 4)



Bieira gratinatua. TXINTXARRI

### 'Cantara': itsasoa eta lurra fusionatzen dituen bieira gratinatua

ARAETA JATETXEA (BERRIDI BIDEA 22, ZUBIETA)



Tigre otarrainxka. TXINTXARRI

### Zitrikoekin egindako tenpuran frijitutako tigre otarrainxka, mango kremaz lagunduta

LASARTE-BERRI TABERNA  
(KALE NAGUSIA, 31)

## Txerriaren jaiak ospatu dute

Txerriaz gozatu eta, besteak beste, hestebeteak (odolki eta txorizoak) egiten ikasteko tailerrean parte hartu zuten hilaren 18an eta 19an Virgen de Guadalupe Extremadura Etxera joan zirenek. Horrez gain, hamaiketako, bazkari nahiz afari herrikoiak edota karaokea aurrera eramane zituzten VII. Txerri Hiltzearen Jaian.



TXINTXARRI



IONE ARTOLA IRIZAR

## 1963an jaiotako afaria

Kuadrilla ederra elkartu zen Lavie jatetxean, hilaren 18an. Primeran pasatzeaz gain, bapo afaldu zuten: bakailao kruxpeta, hasteko; tomate, mendreska eta piper gorri konfitatu entsalada; masail rabiolia foie kremarekin; bakailao kurruskaria tipula kremaren gainean; hezurrik gabeko arkume lingotea azalorre krema eta barazki kuskusarekin; eta gazta eta fruitu gorrien krema bat.

Lasarte - Oria 2023

Azaroaren 24<sup>tik</sup> 26<sup>ra</sup>

# IX Aterpea Pintxo Bidea

Ostirala 19:00etatik 21:00etara  
Larunbata eguerdian eta 19:00etatik 21:00etara  
Igande eguerdian

Pintxo Aterpea  
2,50€



**PLAN B KAFETEGIA**  
Bolognesa haragi  
eta gaztarekin betetako txanpinoa



**LASARTE BERRI TABERNA**  
Tigre otarrainxka zitriko tenpura  
mango kremarekin



**BUENETXEA TABERNA-KAFETEGIA**  
Onddo, berdura bexamel eta trufa zuri  
oliodun kurruskaria



**ARAETA SAGARDOTEGIA**  
'Cantara': itsasoa eta lurra  
fusionatzen dituen bieira gratinatua



**ARIMA GASTROTABERNA**  
Txerri haragi marinatua, guakamole eta  
'pico de gallo' saltsa mexikarrekin



**HERRIKO ETXEA JATETXEA**  
Kimchi maionesarekin betetako haragi  
kruxpetak

Parte hartu!  
**500€**

500€ zozketatuko ditugu  
erosketa-bonoetan



LASARTE-ORIA  
LOLA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA  
TRATU ON BAT  
UN BUEN TRATO



## Musika eta antzerkia

Danok Kide elkarteak antolatutako XVIII. Musika Topaketen barruan, Errenteriako Zaria Koru Eskolak *Come again* kontzertua eman zuen hilaren 17an Ama Brigitarren komentuan. Ordubeteko emanaldian, Berpizkunde garaiko musika eta William Shakespeareren testuak uztartu zituzten, bi maitasun istorio oso bestelakoren berri emanez.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Literatur lan onenei aitortza

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako literatur lehiaketetako autengo sariak banatu zituzten hilaren 18an. Ohi bezala, Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan egin zuten ekitaldia, eta irabazleek Agustín Valdivia alkatearen eta Anne Ugarteburu Kultura batzordeburuaren eskutik jaso zuten saria. Guztira, 331 idazlan, olerki eta mikroipuin aurkeztu dituzte.



TXINTXARRI

## Egurrezko artelanak, ikusgai

Zurmailu Zurlanketa Elkarteko kideek azken hilabeteetan egurra landuz egindako obrekin bete dute Mercero gunea. Erakusketaren irekiera ekitaldia hilaren 17ko arratsaldean aurrera eramán zuten, egileen eta zenbait udal ordezkariaren parte hartzearekin. Hilaren 26ra arte dute herritarrek trebeziaren erakusgarri diren lanak ikusteko aukera.

## Erritmoen arteko bidaia

Zero Sette orkestrak antolatutako XX. Lasarte-Oria Akordeoi Jaialdia aurrera eramán zuten hilaren 18an Manuel Lekuona Kultur Etxean. Claudio Constantini bandoneon jotzaile perutarrek eta Expressio Duo akordeoilari bikoteak estilo, erritmo eta garai desberdinak jorratu zituzten bi orduko saioan. Bakarka aritu ondoren, azken pieza elkarrekin jo zuten.



TXINTXARRI

# Erabili meloia

## Ez egin erosketa oldarkorrik

**Kontsumitu buruarekin**

**#KontsumitzenJakín**



f t i www.kontsumobide.eus

**kontsumOBIDE**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

*Euskadi, auzolana, bien común*  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



Monolitoa jartzeko eremua, hesi artean dagoena, prest dago honezkerok. Atzean, Mirentxu eraikina. TXINTXARRI

# Iragan makurreko eraikin polit bat

"Frankismoaren basakeria jasan zutenen oroimenez" eta udalarekin elkarlanean, memoria historikoaren aldeko Islada Ezkutatuak taldeak monolito bat inauguratuko du igande honetan, hilak 26, Mirentxun, 12:00etan. Ostean hamaiketako egingo dute

## Iñigo Gonzalez Sarobe

"Orduak pasa ditzakegu hizketan, edozein haritik tiratzeko erraztasuna dugu; zuk neurtu". Islada Ezkutatuak taldeko kideek abisugisa esan diote hori kazetariari, memoria historikoarekin zerikusia duten gaiak mahai gainera ateraz gero hizketaaldia amaiezina izan daitekeelakoan. Larritu beharrean, ordea, artikulua hau idazten ari denak gozatu egin du Mailu Arruti, Joxea Muguruza, Mikel Amenabar, Mailu Muguruza eta Josu Agirretxe kideekin izandako solasaldia. Gauza bera sentitu nahi duzuenok asteartean duzue hitzordua, kultur etxeko 1. solairuan, 17:30ean. Ez zaizue damutuko.

Ez zaizue damutuko ezta ere igande honetan, hilak 26, talde horrek berak antolatu duen ekitaldira joaten zaretenoi. Mirentxun izango da, 12:00etan. Ez zaizue

damutuko, itxura polita duen eraikin horren iragan makurra ezagutzeko aukera izango duzue. "Udalaren Gizarte Zerbitzuak bertan kudeatzen dituztela bada-kite herritar askok, baina ez 1936an frankismoaren okupazioaren sinbolo bilakatu zela", jakinarazi du Arrutik. Aipatu ekimen hori aurrera eramateko tokia, beraz, ez dute "kasualitatez" aukeratu.

Zergatik izan zen Mirentxu eraikina "okupazio eta zapalkuntza sistema" horren sinbolo? Bada, orduan indarrean zegoen Errepublikaren eta lasartearren bizi-moduaren aztarna oro ezabatze-

**"1936AN FRANKISMOAREN OKUPAZIOAREN IKUR BILAKATU ZEN MIRENTXU ERAIKINA"**

ko egin beharrekoa han erabakitzen zutelako: "Aurreko agintariak kendu, egitura demokratikoak desagerrarazi, enpresa publikoak kendu, ondasun publikoak nahiz pribatuak konfiskatu, kolpisten ideologiarekin bat ez zetozenen izen-abizenak zerrendatu eta akabatu... Begira zertaz ari garen hizketan, ez da txantxa", nabarmendu du Joxea Muguruzak. Azaldu du Oriako ibarraren inbasioaren harira iritsi zirela Lasartera, eta komandantzia militar bat ezarri zutelako aipatu eraikin horretan, gureaz ez ezik inguruko zenbait herriren gaineko erabakiak hartzeko: Andoain, Hernani, Urnieta eta Usurbil. "Lasarte oso herri garrantzitsua zen frankistentzat, kostako errepidea ito nahi zutelako eta azpiegitura ugari kontrolatzeko aukera zutelako: karretera, trena, industria, eta abar". Edonola ere,

"zailtasun izugarriak" izan zituzten eremu hori hartzeko, batez ere, taldeak berak aurkikuntza historiko eta garrantzitsu ugari egin dituen Txaldataxur mendiko lubakiagatik. "Gune hori kili-kolo egon zen arte ez ziren sartu Lasarten eta Donostian".

## Urretatarrak eta 'Komisioa'

Mikel Amenabarrek ezagutu zituen okupazio frankistaren aurretik Mirentxun bizitu zirenak: Urretatarrak. "Frankistek egin zutenaren adibide garbi bat da". Beste askok bezala, ideologia arrazoiengatik "ziztu bizian" alde egin behar izan zuten Miguelek eta familiak (alaba zaharrena, berriki hildakoa, Miren zen; horregatik jarri diote gero eraikinari izen hori). "Enpresa batzuk zituen Miguelek, teila fabrika bat adibidez, eta 50.000 pezetako isuna ezarri zioten, urtean 50 ordaintzeko baimena emanda. Lehen bi urteetan pagatu zuen, baina hirugarrenean edo laugarrenean ez, esan ziotelako inor ez zela konturatzen. Orduz geroztik, inork ez zion ezer gehiago eskatu. Auskalo nortzuen poltsikoetara joaten zen isunen diru hori". Amenabar jaio zenerako komandantzia militarrik ez zegoen Mirentxun eta Urretatarrak itzulita zeuden. Hori bai, berez haiena zen etxea berriz ordaindu behar izan zuten. "Oso ohikoak izan ziren horrelako lapurreta eta konfiskatzeak; guk ditugun datuen arabera, etxeen %75 huts-hutsik utzi zituzten, 3.000 biztanle inguruko herri batean".

Horrelako erabakiak *Komisioa* izeneko talde batek hartzen zituen. Talde horren errutina bilakatu zen nori zer konfiskatu, nor fusilatu eta antzeko erabakiak hartzea. Mirentxun elkartzen ziren frankisten aldeko zenbait herritar, apaiza, auzo alkatea (Lasarte udalerrri independente ez zenez oraindik, horrela deitzen zitzaion pertsona horri), karlisten burua, falangisten buruan, militarrik eta *gentes de orden* deitzen zitzaizkien, garaiko jauntxo boteretsuak hain zuzen. Euren helburua, ordura arteko bizimodua "erabat

**"OSO GARRANTZITSUA ZEN LASARTE FRANKISTENTZAT, AZPIEGITURA UGARI KONTROLATZEKO"**



Oriako argazkiak. TXINTXARRI

## Oria auzoari omenaldia, abenduan

Mirentxun aurrera eramango duena ez da Islada Ezkutatuak taldeak urtea amaitu aurretik egingo duen ekitaldi bakarra izango. Abenduaren 17an, igandez, Oria auzoko argazki historikoen segida luzatu egingo dute, herritar batek etxean gordeta zuen irudi batekin. Berak taldeari eman, horrek argitaratu eta "famatu" bilakatu da. Rosa Luxemburgo bataloiko kide ugari azaltzen dira erretratuan.

Eragile horretako kideek azpimarratu dute "auzo borrokalaria bat" omentzea dela haien asmoa eta argazki horrek ongi islatzen duela orientaren "izpiritua" zein den. "Frankisten inbasioari eusteko lehen lubakiak haiek eraiki zituzten eta bakoitzak etxean zuenarekin egin zieten aurre". Horrez gain, langile mugimendua oso indartsua zen bertan, antolatzen zituzten mitinak Gipuzkoan erreferente izateraino. Are gehiago, *Errusia txikia* ezizenez ezaguna zen garai horretan.

eta lehenbailehen" ezabatzea, Agirretxek esan duenez.

Etxe "politi" horretan gertatutakoa azaleratuko du Islada Ezkutatuak taldeak igande honetako ekitaldian. Eragile horretako kideek eskerrak eman dizkiote Lasarte-Oriako Udalari, laguntzeagatik. "Orain arte erraztasunak besterik ez dizkigute eman gure jarduna aurrera eramateko".

Erreportaje osoa  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)-en



TXINTXARRI

## Garazi Arrularekin solasean

Lasarte-Oriako irakurle txokoak ikasturteko bigarren saioa aurrera eraman zuen hilaren 21ean, Garazi Arrula idazle nafarra Antonio Mercero aretora gonbidatuta. *Lurraz beste* eleberriaz hitz egin zuten bertaratutakoek, irakurri osteko inpresioak egilearekin partekatuta. Emakumearen

Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruko ekimenetako bat izan da. Hurrengo saioa abenduaren 19an egingo dute, kultur etxeko 3. solairuan, 18:30ean; Uxue Apaolaza idazlearekin batera aztertuko dute berak idatzitako *Bihurguneko nasa* eleberria.



Ezker-eskuin: Idoia Garces, Yolanda Iglesias, Maddi Etxeberria eta Mijo Lizazaburu. TXINTXARRI

## Lodifobiaz eta elikadura nahasmenduaz hitz egin dute

Azaroaren 25aren harira 'Lodifobia eta elikadura nahasmenduak: gorputzaren diktadura' mahai ingurua egin dute

### Txintxarri

Hiru hizlari gonbidatu dituzte: Yolanda Iglesias ACABE Gipuzkoa elkarteko koordinatzaile eta psikologoa; Mijo Lizazaburu militante transfeminista, filosofoa eta Euskal Herriko I. Jardunaldi Lodiak-en antolatzailea; eta, Maddi Etxeberria, nutrizionista eta anti dieta mugimenduaren aldarrikatzailea. Idoia Garces herri-tarra arduratu da saioa moderatzeaz.

Iglesias izan da hitza hartzen lehena, eta elikadura jokabideen nahasmenduaz aritu da. Aipatu du itxura fisikotik harago doan termino bat dela, nahiz eta hori sufritzen duten pertsonen autoestimu maila, itxura fisikoarekin erabat lotuta dagoela nabarmendu duen. Kontatu du baita ere irakasleentzat eta osasungintzako langileentzat eskaintzen dituen formakuntza saioetan gorputz forma ezberdinak edukitzeaz hizketan hasten direnean "eztabaida handiak" sortzen direla: "Pentsa, uler daiteke pertsona bat anorexiaren ondorioz hiltzea, baina gorputz forma ezberdin bat duen pertsona zoriontsu izatea, aldiz, ulergaitza da". Honako adierazpen hau ere egin du: "Gorputza geure buruarekin, eta geure ingurukoekin harremantzeko modua da".

Mijo Lizazabururentzat, berriz, garrantzitsua da lodifobiaren gaia politizatzea, hala izan ezean, "arazo indibidual gisa" gizarteratzen delako hori. Iaz Gernikan (Bizkaia) antolatutako Euskal Herriko I. Jardunaldi Lodiak ekarri ditu gogora: "150 pertsona lodi batu

ginen bertan, eta ohartu ginen gaiak indibidualetik ez duela bategere".

Lizazaburuk bere burua pertsona gizen gisa izendatzea "bortitza" egin zaio Iglesiasi, hala adierazi dio, eta azaldu, horren zergatia: "Gizentasuna termino kultural bat da, beraz, lodia izatea zer den eta zer ez zehazten ari gara. Nire egitura mentalean ez dira kabitzen gizen eta argal terminoak, askotariko formetako gorputzez hitz egiten dut nik. Niretzat, pertsona batek bere burua gizen gisa definitzea biolentzia da". Lizazaburuk erantzun dio "irainaren birjabetze bat" egiten ari direla: "Zeure burua gizen kategoriatik erabat urruntzen bazara, lodifobia dutenei erreminta oso indartsu bat ematen diozu, adibidez, etxera irainarekin minduta negarrez joan zaitez. Aldiz, pertsona lodi gisa aldarrikatzen duzunean zeure burua, irain hori desaktibatuz, eta birdefinitzen duzu".

Nutrizionista eta anti dieta mugimenduko kide Etxeberriak hitz egin du gero, eta, azpimarratu du "espazio gutxiago betetzearekin itsutu" garela: "Funtzionatzeko gasolina behar duen auto bat izango bagina bezala jokatzeko dugu elikadurarekin, eta, noski, gure egunerokoa aurrera eramateko elikatzea beharrezkoa zaigu, baina ezin dugu ahaztu izaki emozionalak ere bagarela, eta hori kontuan hartzea ezinbestekoa da". Aipatu du baita ere pertsona heldu baten eta elikaduraren arteko harreman sanorik ez dela existitzen. Luze hitz egin dute gaiak, eta tarteka herriarrek ere hartu dute hitza.

## Berdintasuna, liburuaren bidez

Maria Garcia Ladero ipuin kontalariak berdintasuna landu du herriko zenbait 6 eta 8 urteko umeekin, liburuaren bidez. Hiru ordu laurden inguru iraun dituen saioan, besteak beste, lan hauek erakutsi dizkie gaztetxoek: *Arrosa eta leuna*, *Neskak eta mutilak*, *Oliver Button poxpolin bat da*, *Bizenta txiki*, *Amets Gaizto nire armairuan edota Nola sentitzen zara?*.



TXINTXARRI

## Lekukotzen erakusketa

Gehitu elkartearen eskutik, *Ni naiz naizena* erakusketa jarri dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko 1. solairuan: hamar pertsona transen testigantzekin osatutako esposizioa da. Abenduaren 1era arte egongo da zabalik eta ordutegia hau da: goizetan, 09:30etik 13:00etara, eta, arratsaldean, 16:00etatik 20:30era. Sarrera doakoa dela gogorarazi dute antolatzaileek.



TXINTXARRI





TXINTXARRI

## Beldur Barik lehiaketako saridunak

Beldur Barik lehiaketaren X. aldia izan da aurtengoa, eta bertan aurkeztu diren ikus-entzunezko lanak saritu dituzte, berriki. Hiru lan aurkeztu dituzte aurtengo ekimenera; horietako bat lehen kategoriara (12-13 urte bitartekoak) eta, bi bigarrenean (14-18 urte bitartekoak). Epaimahaiak hiruak saritzea erabaki du.

*Neska baten egunerokoa* izenburua jarri diote lehen kategoriara aurkeztutako lanari; hiru laguneko taldetxoak jaso du 200 euroko saria. *Mugak finak* dira, eta *Kaleak ere gureak dira* lanak aurkeztu dituzte bigarren kategoriara. Bi lanak saritzea erabaki du epaimahaiak, hain zuzen ere, hirugarren kategoriara

lanik aurkeztu ez denez, horri zegokion saria eman baitiote bigarren kategoriako bigarren lanari. Azken bi horiek ere 200 euroko sari bana eskuratu dute.

Zenbait udal ordezkari izan dira sari banaketan, horien artean Agustin Valdivia alkatea; bere eskuetatik jaso dituzte sariak. Nabarmendu du "indarkeria matxistaren aurkako gazteriaren jarrera eta konpromisoa zein den gizarte osoari erakusteko lanak" egin dituztela parte hartzaileek. Zorionak ere eman dizkie egileei, egindako lanagatik, eta datorren urteko lehiaketan parte hartzera animatu ditu.



Lasarte-Oriako batzordeko zenbait kide, Oriarte Landaberri atarian. TXINTXARRI

## Azken asanblada, hilaren 28an

Datorren asteko ostegunean (hilak 30) aurrera eramango dute Euskal Herriko mugimendu feministak deitutako greba orokorra. Herritar talde batek deialdi horrekin bat egin eta batzorde bat sortu du egun horren harira lanketa egin eta zenbait jarduera prestatzeko. Ildo horretatik, jakinarazi du 28an aurrera eramango duela azken asanblada misto eta irekia, 19:00etan, Oriarte institutuko Landaberri eraikinean.

Hauxe da datorren asteko ostegunean aurrera eramango duten egitaraua: 10:00etan, kalejira bat egingo dute herrian zehar zaintzaren egoera zein den ezagutarazteko; 12:00etan, agerraldi masibo bat aurrera eramango dute Okendo plazan; eta, 18:00etan, eskualdeko deialdiarekin bat egin eta Hernaniko manifestaziora joango dira.

# PORNOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ESKOLA BAT DA

Eszena pornografikoen % 88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzezkoa du.

Ez dezagun sexu-heziketa bere eskuetan utzi.

azaroak

25

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna



Euskadi, auzolana



HEGONAREN JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

araba álava  
foru aldundia diputación foral

Bizkaia  
foru aldundia  
diputación foral



900 840 111 24 h  
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

# Erregional taldeak neurketari itzulia eman dio

Texas Lasartearra CFko Erregional Mailako taldea nagusi izan arren, 0-2ko emaitzari buelta eman behar izan dio Usurbil FTren aurka. Talde urdin-zuria multzoko hirugarren postuan da, baina ez du zortetik izan lesioekin denboraldi hasiera honetan

## Txintxarri

Texas Lasartearrako Erregional I. mailako taldeak Usurbil FT B izan zuen aurrez aurre hilaren 18ko jardunaldian, Michelin kirol gunean. Talde urdin-zuriak ederki borrokatu behar izan zuen emaitzari itzulia emateko eta 4-2 irabazi zuen.

Lehen zatian Texas Lasartearra nagusi izan zen. Eraso arriskutsu ugari sortzeko gai izan zen, baina Yonatan Monroyren jokalariek atea aurrean ez zuten asmatu. Ondorioz, husna iritsi ziren atsendaldira.

Bigarren zatia lekuz kanpo hasi zuen etxeko hamaikakoak eta bi hutsez baliatuz, Usurbilek estuasun larrian jarri zuen etxeko taldea, 0-2. Urdin-zuriek ez zuen amore emango, ordea. Texasek aldaketak egin eta "aire freskoa"



Jokalaria baloiarekin ihesi. TXINTXARRI

sartu zen zelaira. Horri esker, lau gol jarraian egin zituen partidaren emaitzari itzulia emanaz.

Garaipena lortzeagatik pozarren dagoen arren, Texaseko prestatzailea ez dago konforme emaitzarekin: "Gure jarrera oso ona izan zen eta ongi erantzun genion

egoerari. Baina haserre nago; ez baikeuen golik jaso behar".

## Lesioekin arazoak

Garaipen horri eta denboraldi hasierako emaitza onei esker, Texas Lasartearrako Erregional I. mailako taldea laugarren multzoko hirugarren postuan dago egun. "Egia da kale egin behar ez genuen neurketaren batean ez dugula esperotako emaitza izan, baina ongi goaz", adierazi du talde urdin-zuriko ardura-dunak. Izan ere, Erregional I. mailako taldearen helburua lehen postuengatik borrokatzea da. "Igoera fasean egon nahiko genuke txapelketa horretaz gozatzeko, baina astez aste joan behar gara", onartu du Monroyek.

Eta horretarako erregionaleko jokalaria lanean ederki ari



Texas Lasartearra CF, Remiro proiektuko zein udal ordezkariak. TEXAS LASARTEARRA CF

## Ongizate emozionala lantzen

Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala kirolean izeneko formakuntza hasi zen hilaren 20an, Antonio Mercero gunean. Texas Lasartearra CFk antolatuta, hogeit bat herritar bildu ziren Alex Remiro Realeko atezainak eta Futbol Mas Fundazioak sortutako proiektuan parte hartzeko. Helburua futboleko prestakuntza garaian kirolari eta euren senideen ongizate emozionala lantzen laguntzea da. Hilaren 27an eta abenduaren 4an izango dira hurrengo saioak, toki berean, 18:00etan.

direla eta kirol elkartearen babes osoa duela jakitera eman du entrenatzaileak.

Tamalez, lesioen ondorioz talde osoa ez duela onartu du: "Zortzi jokalaria min hartuta ditut, batzuk epe luzeko susperraldia dute eta urtarrilerako baten bat zelaira itzuliko denaren esperantza dut. Oso zorte

txarra izan dugu denboraldi hasiera honetan".

Hala ere, arestian aipatu moduan, astean astekoari begira dago urdin-zurien prestatzailea eta Tolosa du orain buruan: "Hurrengo asteburuan, Tolosara irabaztera joan behar dugu. Neurketa serioa egin eta atea hutsean utzi".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONALA</b> Debagoiena bailara - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Ibarra, Aretxabaletan.
<b>GORENGOEN MAILA</b> Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
<b>ERREGIONALEN I. MAILA</b> Idiazabal KE - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Arizkorreta, Idiazabal. Tolosa CF B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 19:30. Usabal, Tolosan.
<b>OHOREZKO JUBENILA</b> Astigarrako Mundarro FKE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Zarkumendegi, Astigarragan.
<b>JUBENILEN I. MAILA</b> Billabona KE B - Ostadar SKT C Larunbata. 18:00. Arratzain, Villabonan. Ostadar SKT B - Allerru KE Igandea. 10:50. Michelin kirol gunean.
<b>OHOREZKO KADETEA</b> Ostadar SKT - Hondarribia FE Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
<b>KADETEEN I. MAILA</b> Ostadar SKT B - Lazkao KE C Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

Ostadar SKT (neskak) - Añorga KKE B Larunbata. 15:15. Michelin kirol gunean. Euskalduna Andoaindara SD B - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 11:00. Ubitarte, Andoain. Antigua Luberi KE B - Ostadar SKT C Igandea. 10:15. Berio, Donostian.
<b>INFANTIL HANDI, KOPA</b> Ostadar SKT - Urnieta CD Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA</b> Beasain SD - Ostadar SKT Larunbata. 13:30. Igartza, Beasainen.
<b>ALEBIN, AURRETIKO FASEA</b> Ostadar SKT - Euskalduna Andoaindara SD Igandea. 09:30. Michelin kirol gunean. Orioko FT - Texas Lasartearra CF Igandea. 10:30. Mendibeltz, Orion.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>I. MAILA</b> Oiertzun KE - Eguzki AF Larunbata. 18:00. Elorsoro kirol., Oiertzunen.
<b>III. MAILA</b> Eguzki ISU Leihoak - Benetazko FT Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

<b>KADETE MAILA</b> Eskoriatza KE - Eguzki G. Goxua Larunbata. 09:45. Manuel Muñoz kir., Eskoriatzan.
<b>INFANTIL MAILA</b> Eguzki Bar Escalerillas - Lauburu KE Ibarra neskek Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>SASKIBALOA</b>
<b>I. MAILA</b> Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA</b> Carnicas San Marcial Hondarribia - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Hondartza kirol., Hondarribian.
<b>KADETE ERRENDIMENDU URREA</b> Bera Bera - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b> Ostadar SKT - Aldapeta Maria Ikastetxea Larunbata. 14:00. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTIL ERRENDIMENDU URREA</b> Easo Basket Mendiola - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Bidebieta kirol., Donostian.

<b>INFANTIL PARTAIDETZA</b> Luberrri Ibaeta Jakibai - Ostadar Urdina Larunbata. 10:45. Antigua Luberi BHI, Donostian. Ostadar Beltza - Aresko Infantil Txiki berdea Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol. Alaia Askatuak - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
<b>BOLEIBOLA</b>
<b>EUSKAL LIGA</b> Ostadar SKT - Navarvoley B Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>EUSKAL LIGA, II. MAILA</b> Bera Bera - Ostadar SKT Larunbata. 19:00. Manteo kirol., Donostian
<b>JUBENIL-SENIOR MAILA</b> Ostadar SKT (S) - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>INFANTIL MAILA</b> Harresi 2 - Ostadar SKT A Larunbata. 10:00. Hondartza kirol., Hondarribian. Aldapeta Maria berdea - Ostadar SKT B Larunbata. 12:30. Aldapeta Maria ik., Donostian.

<b>ERRUGBIA</b>
<b>14 URTEZ AZPIKOA</b> Beltzak RT Errugbi eskolako kideek lagunartekoak jokatuko dituzte. Larunbata. 10:30. Lakua, Gasteizen.
<b>LASTERKETA</b>
<b>DONOSTIAKO MARATOIA</b> Herriko korikariak Donostiako Zurich Maratoian, erdi maratorian eta 10 kilometro proban lehiatuko dira. Igandea. 08:20/09:00. Donostian.
<b>XAKEA</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b> Taulako kideak maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia jokatuko dute. Larunbata. 16:00. Donostian.



# KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

LASARTE-ORIA

# GREMIOAK



## BARNE-DISEINUA

 **SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK
  - KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)



## ITURGINTZA

 **ELOLA  
ITURGINTZA**

ITURGINTZA | GASA  
BEROKUNTZA | ERREFORMAK  
**GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Galdara, berogailu eta  
termo ordezkapenak

Tel: 608 76 00 06  
[elolaiturgintza@gmail.com](mailto:elolaiturgintza@gmail.com)  
LASARTE-ORIA



## IGELTSERITZA

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN  
VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



## ELEKTRIZITATEA

 **ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)



## KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

 **ANORGA TXIKI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
  - Beira bikoitza
  - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
  - Ispiluak
  - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943-37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)



31. urteurrena

**ISU**

## PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Kale Nagusia, 46 behea.  
LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala  
USURBIL



ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?  
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66

# Alebin eta benjaminek lan ederra egin dute

Buruntzaldea IKTko alebin eta benjamin mailako igerilariak hitzordua izan dute Allurralde kiroldegian, Andoainean. Igeriketa taldeko kideek euren onena eman dute; alebin mailako kideak Gipuzkoako txapelketarako gutxienekoak metatzen hasi dira

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTko alebin eta benjaminek hitzordua izan zuten hilaren 18an Andoainean Allurralde kiroldegiko igerilekuan. Igeriketa taldeko gaztetxo guztiek maila handiz euren prestakuntza aurrera doala erakutsi zuten eta Gipuzkoako txapelketarako hainbat gutxieneko eskuratu zituzten.

Arratsaldeari hasiera emateko, taldeko gaztetxoek denboraldiko lehen txapelketari egin zioten aurre.

2015ean eta 2014an jaiotako haurrek 50 m, estilo libre proba eta bizkar estiloko 6x25 m. errelebo mistoa izan zituzten. Guztira adin tarte honetako bederatzai haur aritu ziren Andoainean. Ostean, B kategoriako benjaminak -2013 urteko gaztetxoak- aritu ziren lehian. Buruntzaldea IKTko lau kirolaririk parte hartu zuten multzo horretan eta lauak bizkar estiloko probaz gain, 100 m. libreko saioa burutu zuten.

Guztiak ondo igeri egin zutela nabarmendu dute igeriketa talde-



Alebin mailako igerilariak. BURUNTZALDEA

ko prestatzaileek. Adin horietan estiloak ikasi eta menperatzeari eta arautegia barneratzeari garrantzia ematen diotela azpimarratu eta hori kontuan izanik, "guztiak lan bikaina" egin zutela adierazi dute igeriketa taldeko arduradunek.

## Markak ondu

Txikiak amaitu eta taldeko hamar alebinek ligako bigarren jardunaldia lehiatu zuten. Oinarritzko bi probetan igeri behar izan zuten igerilari guztiek: 200 m. estilo libre eta 100 m. bular proba. Horrez gain, neskek 4x100 m. libre erreleboan ere parte hartu zuten.

200 m. estilo libreko proba zailean "beldurrik gabe eta ausardiaz egin zuten igeri" Buruntzaldea IKTko kideek eta Itxaso Iparragirrek, esate baterako, alebin mailako Gipuzkoako txapelketarako gutxieneko marka (02.49,57) egin zuten. Ez zen hori taldeko gutxieneko marka bakarra izango. Lehen proba jokatu eta hogeitunura 100 m. bular proban, Amy Y. Sanchezek (01.53,22) eta Iparragirrek berak (01.42,59) lortu zuten proba horretarako txartela.

Hasiberriek 50 m. libre proba ere egin behar izan zuten eta Lier Garmendia taldekidea nagusi izan zen.

Jardunaldia erreleboarekin amaitu zen. Itxaso Iparragire, Aiala Erro, June Apeztegia eta Aizpea Barcinak laugarren postua eskuratu zuten. Iparragirrek, gainera, gutxieneko berri bat eskuratu zuten, 100 m. librekoa (01.19,14). Amy Y. Sanchezek Igar-tza eta Ordiziako igerilariekin batera egin zuten laukoa.

## Partida galdu arren, kadeteak egindako lanarekin pozik

Sailkapeneko buru ZAST Kurayeren aurka neurketa borrokatua jokatu du Kadete Errendimendu Urrea taldeak

## Txintxarri

Neurketa zaila zuen Ostadar SKT-ko Kadete Errendimendu Urrea taldeak ligako jardunaldian. ZAST Kuraye taldea izan zuten aurrez aurre Maialen Chourraut kiroldegian. Zarauzko taldeak ez du partidarik galdu denboraldi hasiera honetan eta maila handia ari da erakusten.

Partida berdinduta hasi zen, baina defentsa huts batzuek zarauztarrek 8-0 aurreratzea ekarri zuen. Talde urdin-beltzak ongi erantzun zuten, ordea. Defentsa berregin eta aldea sei puntutara jaistea lortu



Neurketako irudia. TXINTXARRI

zuten. Bigarren laurdenean jokalaria txandakatzeari esker defentsa irmoa lortu zuten etxeko taldeak; tamalez, erasoan ezin aurrera egin aurkitu zen. Baina aurkariak ere arazo bera aurkitu zuten eta 1-4ko partziala izan zen.

Atsedenean ostean, laurdena irabaztera atera zen Ostadar; defentsa mantendu eta erasoan ere baloia mugitzea lortu zuten. Etxekoak ederki ari ziren jolasean. Ondorioz, errenta murriztu eta bi puntura geratu ziren kadeteak. Azken hamar minutuak hastean, intentsitate handiko jokoa izan zen; zarauztarrek hiru hiruko egin eta Ostadarrek erantzun modura bat egin zuten. Alabaina, pixkanaka kanpotarrek puntuak lortu eta hamar puntuko aldea ireki zuten. Etxeko jokalariek esfortzuzarengatik nekea sentitzen hasi ziren eta saiatu arren, ezin izan zuten garaipena etxean utzi. Azken emaitza 30-44 izan zen.

Emaitza aldekoa izan ez arren, kadeteen entrenatzailea pozarren dago egindako lanarekin. Gainera, playoffa jokatzeko birtualki sailkatua dira eta bertan borrokatzeko gogoekin daude.

## Saleta eta Zumeta errugbilariak, Europako Superkopian lehian

Castilla y Leon Iberians taldeak Lusitanos 18-13 garaitu du; finalerdian Georgiako Black Lions dute aurkari

## Txintxarri

Alex Saleta herritarra -hamabostekoan jokatu zuen- eta Beltzak RTko harrobiko kide Urko Zumeta Castilla y Leon Iberians taldearekin lehiatu ziren Europako Superkopian hilaren 19an, Valladoliden.

Portugalgo Lusitanos taldearen aurkako neurketa borrokatua izan zen. Kanpotarrak markagailuan aurreratu arren, Espainiako selekzioak minutu gutxitan emaitzari itzulita eman eta azkenean, 18-13 gailendu zen.

Garaipen horri esker, lehiaketako finalerdietarako sailkatu dira eta abenduko lehen asteburuan

Georgiako Black Lion taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Euskal Ligara itzuliz, Beltzak RTko 16 eta 18 urtez azpiko taldeek Bilboko el Fango zelaira egin zuten bidaia Universitario Bilboren aurka egiteko. Etxeko taldeek euren nagusitasuna erakutsi zuten; 16 urtez azpiko lehiari Universitario 65-22 gailendu zen eta zaharreneen kasuan, 26-17 izan zen azken emaitza.

Errugbi eskolako txikiak, aldiz, Gasteizen jokatu zuten. 10 eta 12 urtez azpiko kideek Gaztedi, Arrasate eta Iruña izan zituzten aurrez aurre.

## Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak, garaipen borrokatua

Bigarren zatian Eskolapioak Herrikidek launa berdindu ostean, bere jokorik onena erakutsi eta 8-5 irabazi du

## Txintxarri

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak beste garaipen bat lortu du Gipuzkoako I. Mailan. Bigarren zati borrokatu baten ostean, Tolosako Eskolapioak Herrikide 8-5 garaitu zuen Josu Lopezek zuzentzen duen taldeak Ligako zortzigarren jardunaldian.

Nahiz eta etxekoek neurketa indartsu hasi, aurkariak ezusteko batean harrapatu eta markagailuan aurre hartu zuten. Eguzkiko kideek garaipena buruan, ez zuten amore eman eta hiru goli esker, atsedendiraiko partida kontrolpean zuten.

Bigarren zatiko lehen ordu laurdenean, bi taldeek atea aurrean aukerak izan zituzten, baina aurkariak finago ibili ziren baloia sartzerako orduan eta launa berdindu zuten.

Jarraian, garaipeneko puntuak ihesi egiten utziko ez zituela argi utzi zuten etxeko taldeak eta bere minutu hoberean jokatu zituen. Aukerak ongi baliatu eta hiru gol egin zituen Josu Lopezek taldeak, 7-4koa lortuz. Azken minutuetan, dena erabakita zegoela, gol bana egin zituzten bi taldeak.

## Judoka kadeteak ederki lehiatu dira Anaitasuna torneoan

Iruñeko Anaitasuna kirol elkar-teak kadete eta infantil mailako lehen torneo antolatu zuten hilaren 18an. LOKE Judo ataleko lau kide Nafarroako hiriburura bidaiatu zuten eta hiru domina jantzi zituzten. Ekain Luis eta Aitor Santos euren mailako finaletara iritsi ziren, baina ezin izan zituzten aurkariak gainditu. Zilarrezko postuan



LOKE JUDO

amaitu zuten beraz herriko kirolariek. Podiumeko hirugarren mailan, aldiz, Iker Izquierdo izan zen. Tarieli Tato Kevlishvili judokak ere parte hartu zuten eta ongi lehiatzen ari zen arren, lesio batek finalerako atean utzi zuten.

## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Malen eta Arias**  
Biloba eta aitona.  
Aze pare! Segi horrelaxe. Muxu handi bat etxekoan partetik.



**Javier**  
Zorionak ZataZezilio!  
7+ok ok? Gure kirolari, argazkilari, sukaldari... guztietan primerakoa! Segi beti bezain xalxero!



**Leire**  
Zoriona polita!! Ondo pasa zure hamabost urtebetetzea! Ea ondo ospatzen duzun! Besarkada mila bihotzez, Maialen, aiton-amona eta familiaren partetik.



**Maddi**  
Zorionak, Etxebeste... Hau da zure beste etxe, baina ez espelxe. Zu zara Lezoko txubxe, ez moska txebxe! Hamaikekorako ez ahaztu tortilla eskabetxe!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

## Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailearekin ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

## Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 24	LASA
LARUNBATA, 25	URBISTONDO
IGANDEA, 26	URBISTONDO
ASTELEHENA, 27	GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 28	ACHA-ORBEA
ASTEAZKENA, 29	URBISTONDO
OSTEGUNA, 30	GANDARIAS-URIBE

## Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.



**Jaio da!**

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## ESKUTITZA

## Birziklatzaileak zabor-tasa finakoaren bidez zigortzea

## EGUZKI

2024an ere birziklatzen dutenek eta birziklatzen ez dutenek zabor-tasa bera ordainduko dutela erabaki du Lasarte-Oriako udal gobernuak. Etxean hondakinak gaika biltzen dutenei hobari edo deskonturen bat egiteko aukera berriro datorren urtera arte atzeratu du, urtero egiten duen bezala. Izan ere, hobariaren aukera mahai gainean dago 2017an bosgarren edukiontzia ezarri zenetik, baina, azkenean, udal gobernuak beti tarifa finkoa hobesten du.

Tarifa finkoa antiekologikoa ez ezik sozialki injustua ere bada, arduraz jokatzeko duten birziklatzaileak zigortzen ditue-

lako, eta axolagabeak, berriz, saritu. Izan ere, birziklatzaileak, konpromiso gehiago hartzeaz gain, tasa finakoaren bidez besteen axolagabekeria finantzatzeko dute. Kontuan izan behar da hondakinak etxean gaika bildu beharrean denak nahastuta biltzen badira, lehengaiak xahutzeaz eta gehiago kutsatzeaz gain, tratamendua nabarmen garestitzen dela. Alde horretatik, oso argigarriak dira San Marko Mankomunitateko honako tarifa hauek: tona bat organiko, 151,30 euro; tona bat errefusa edo, hobeto esan, hondakin guztiak nahastuta, 189,13 euro. Hau da, gaika bildutako

hondakinen tratamendua merkeagoa da (eta are merkeagoa izan beharko luke). Beraz, hondakinak gaika biltzen ez ditugun neurrian edo nahastuta biltzen ditugun neurrian, dirua zuzen-zuzenean zaborretara botatzen ari gara. Tarifa finakoaren bidez, berriz, udal gobernuak lortzen du zaborretara doan diru hori neurri berean izatea gaika biltzen dutenena eta dena nahastuta biltzen dutenena, bereizketarik gabe.

Udalak propaganda-kanpainak egiten ditu, herritarrek birziklatzera animatzeko, "kontzientziatze" baina tarifa finakoaren

bidez herritar horiei berei bidaltzen dien mezua oso-oso bestelakoa da, praktikan birziklatzaileak zigortu eta ez-birziklatzaileak saritzen dituelako.

2024an zabor-tasa %30 igotzea ere erabaki du udal gobernuak. Izugarrizko igoera da, ezbairrik gabe. Hondakin Lege berriaren ondorio dela argudiatu du udal gobernuak. Bada, Hondakin Lege berri horrek berak, "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioari jarraituz, sortutako hondakin kopuruaren arabera ordainketaz eta birziklatzaileen tasak murrizteko aukeraz ere hitz egiten du. Baina Lasarte-Oriako udal gobernuak igoera bai, baina bestea, berriz, oraingoan ere, "datorren urterako" uztea erabaki du.

## OHARRAK

## Beltzak RTren saskia

Jaki eta edariz betetako saskia zozketatuko du aurten ere Beltzak RT taldeak. Gure Etxean tabernan edo Errugbi taldeko kide zein eskolako jokalariek saltzen dituzte tiketak euro batean. Bildutako dirua eskolako gastetarako erabiliko da. Saskia Gure Etxea tabernan dago ikusgai.

## Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen (Oriarte Landaberri eraikinean) biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

### GARAJEA

#### ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldeu deitu hona: 650 63 65 88.

### LANA

#### ESKAINITZA

Lanaldi erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

#### ESKARIA

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

### BESTELAKOAK

#### SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, triminia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

**Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitzeko gurekin harremanetan**

txintxarri@ttakun.eus  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## ESKELA

**ESKELAK JARTZEKO**


**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

---

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



### Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

# txintxarri

*Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz*



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

txintxarri

[WWW.TXINTXARRI.EUS](http://WWW.TXINTXARRI.EUS)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Irati Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

#### Banatazaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

#### Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eus

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN  
ARRATSALDEA BAINO LEHEN. Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## HILAREN 24TIK 26RA



### LASARTE-ORIA Ekimen gastronomikoa

Aterpea elkarteak IX. Pintxo Bidea aurrera eramango du gaurtik igandera; Orotara herriko sei mokadu dastatu ahal izango dira: Bolognesa haragi eta gaztarekin betetako txanpinoia; Cantala: itsasoa eta lurra fusionatzen dituen biera gratinatua; Kimchi maionesarekin betetako haragi kruxpetak; onddo, barazki bexamel eta trufa zuri oliodun kurruskaria; txerri haragi marinatu pintxo, guakamole eta 'pico de gallo' saltsarekin; eta, tigre otarrainxka zitriko tenpura mango kremarekin. Informazio osoa 4. orrian.

*Herriko zenbait taberna eta jatetxetan.*

## OSTIRALA 24

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Elkartasun manifestazio bat aurrera eramango dute ostiral honetan Palestinaren alde, *Gazako genozidioa gelditu, Palestina askatu* lelopean. *Okendo plazatik, 18:30etan.*

## LARUNBATA 25

### LASARTE-ORIA Tailerra

Lasarte-Oriako neska gazteei zuzendutako autodefentsa feminista tailerra antolatuko dute, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan. *Kultur etxea, 09:00etan.*

### LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Lasarte-Oriako Udalak, azaroaren 25eko egitarauaren barruan, elkarretaratze bat antolatuko du, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan. *Okendo plaza, 12:00etan.*

## IGANDEA 26

### LASARTE-ORIA Zinema

*Vampiro al rescate* filma emango dute, haurrentzat. Sarrerak 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*

### LASARTE-ORIA Zinema

*Vidas pasadas* filma emango dute, helduentzat. Sarrerak 6 euro. *Manuel Lekuona Kultur etxea, 19:30etan.*

## ASTEARTEA 28

### LASARTE-ORIA Bakarrizketa

Bea Egizabal clownak *Magma mia* bakarrizketa egingo du, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan. Sarrera doakoa da. *Manuel Lekuona Kultur etxea, 19:00etan.*

## ASTEAZKENA 29

### LASARTE-ORIA Bideoforuma

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren

barruan bideoforuma aurrera eramango dute. *Biyak Bat, 16:30ean.*

## ABENDUAK 2

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasartearra elkarteak jakinarazi du barrikotea egingo duela. Erribera kaleko egoitzan. Menu goxo bat dastatuko dute partaideek eta Bereziartua sagardoa edan, 30 euroren truke. 70 pertsonarentzako tokia dagoela jakinarazi dute antolatzaileek, eta interesa dutenek elkarteke bazkide den norbaitekin joan beharko dutela izena ematera. *Lasartearra elkarte, 20:30ean.*

## ABENDUAK 3

### LASARTE-ORIA Ekitaldia

Euskararen Egunarekin bat eginik, Imanol Lizardi euskaltzale lasarteoriatarra omenduko dute. Andoni Egaña eta Ane Labaka bertsolariak arituko dira oholitza gainean, eta Mailu Arruti arduratuko da saioa gidatzeaz. *Kultur etxea, 18:00etan.*

## Beraien zaindaria gogotik omentzen ari dira musikariak

Santa Zezilia eguna ospatzeko, emanaldia egiten lehenak Udal Musika Eskolako ikasleak izan ziren, bezperan, hilaren 21ean. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioko oholitza gainera agertu eta ikasturte honetan ikasitakoak erakutsi zituzten; trebetasun handia erakutsi zuten musikari guztiek.

Hurrengo egunean, iluntzean, Arrieskalleta elkartetik abiatuta erdigunean barrena ibili zen Oaintxe in deul txaranga. Ez ziren bakarrak izan, herriko txistularien taldea ere animatu baitzen kalejira egitera, Jalgi kafe antzokian bukatu zena. Horrez gain, Alboka Abesbatzak igande honetako (hilak 26) meza girotuko du, San Pedro parrokiakoa, 12:30ean. Kantatu ostean, abeslari eta bazkideak bazkaltzera joango dira. Bestalde, Gipuzkoako Errioxa Etxeak antolatutako Udazken Kulturalean parte hartu dute.



Biolin jotzaile kuadrilla hau ederki aritu zen. TXINTXARRI



Ahotsak instrumentuekin uztartu zituzten. TXINTXARRI



Albokako kideak, Donostiako San Vicente elizan emandako kontzertuan. ALBOKA



Oaintxe in deul txarangako lagunak, erdigunetik. TXINTXARRI



Jalgin amaitu zuten kalejira txistulariek. TXINTXARRI



ELECTRICIDAD  
**ARREGUI**

www.electricidadarregui.com

## Mahai lanpara berriak ditugu! Zatoz ikustera

LED argi erregulatuazileekin | bateria kargagarria | USB edo kablearekin



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Eskatu whatsapp bidez! 600 85 75 86



# IMANOL LIZARDI gogoan

bertso-saioa

Herritar eta lagunen emanaldiak

Abenduaren 3an, 18:00etan

**Manuel Lekuona**

kulturetxean

Sarrera doan

Bertsolariak  
Andoni Egaña eta Ane Labaka  
Aurkezlea  
Mailu Arruti



BATU DITZAGUN  
GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI  
EUSKARAZ  
IRAKASTEKO

«Makinei gizakiok nola hitz egiten dugun irakasteko ekimen bat da, gailu ezberdinekin ahots bidez komunikatu ahal izateko».

Ahots grabaketa sorta erraldoia sortu nahi da milaka ahots lortzea eta euskarazko ahotsen datu basea ahalik eta gehien handitzea.

## AUZOLAN DIGITALA

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan  
Erronka berri bat dugu: makinek gure  
hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten,  
lehenago irakatsi egin behar diegu.

Euskal hiztunen laguntza beharrezkoa da

# GAITU.EUS

-en sar zaitez



LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO



Gobierno de Navarra

Departamento de Educación, Cultura y Deporte

HIRUKO ITUNA

euskaltzaleten topagunea

